

PAULO - TXIKI

Juan Joxe Uria Zubiarrain



Paulo Zubiarrain, "Paulo Txikia" edo "Hernani Txikia"

PaULO-Txikiri buruz
beheraxeago irakurriko
duzuen lantxo, otsailean
idatzi nuen. Paulo bizirik zen oraindik,
eta dagoen bezala idatzi nuen. Ez diot
ezer erantsi eta ez diot ezer kendu.

Fetxa horietan berarekin egon
nintzen Hernaniko Zaharren Egoitzan.
Lan horretan ipintzen ditudan gauzak
kommentatzen egon ginen eta hasieran
agertzen den bertsoa ere kantatu nion.
Berari eskaintzen niola esan nion eta
betiko irrifarrez erantzun zidan. Grazia
egin zion. Puska batean egon ginen
behin eta berriz "betiko" gauzak
kommentatzen. Par pixka bat egin
genuen berriz ere.

Eta lan horretako azken partean
jartzen dudana Pauloren osasunari
buruzko intentzio onen inguruan
bromatxo eta komentario batzuk ere
egin genituen, batez ere animoak
eman nizekion, geroxeago, besarkada
(intentzionatu) batekin despeditu
ginelarik. Egun hartan ez nuen hiltzeko
moduan ikusi Paulo (ezta gutxiago ere)
baina gauza batzuk badirudi igarri
egiten direla eta egoera hari nabaritu
nion nik, ez zela askotan errepikatuko.
Beraz besarkada hark bazuen
momentuko despedita arrunt batek
baino gehixeagoko karga emozionala.

Nik lana entregatu egin nuen, eta
handik gutxira, Pauloren familiak bere
osasunaren ahuldadeaz iragarri zidan.
Ingresatu ere egin behar izan zuten eta
apirilaren 4an hil egin zen Donostiako
Ospitalean.

Beraz eten da lokarria (azkenean).
Ia 90 urteko lokarri sendo baino apala;
garai eta giro hain desberdin eta
apartekoak lotu dituen lokarri mardul
baino hunkigarria; berarekin izandako
solasaldi guztiak gozamenerako
bihurtzen zituen lokarri fin eta samurra.

Seguru aski, berak bakarrik jakingo
zuen bere barru horretan gordeak
zituen, eta berarekin joan diren bertso,
sentimendu, garai on eta txar, umore-
aldi eta tristurak, pozaren gailur eta
etsimenak. Denetarako denbora eta
egokiera izan baitzuen Paulok.

Ez da erraz izango baina saiatuko
gara Paulo, zure pentsakera umil, garbi
eta jator hura gurean barneratzen:
naturari, gizakiari e.a. izan zenien
errespetu, maitasun hura, alegia.

Agur Paulo. Honez gero hasi zara
bertsotan Txirritarekin; hainbeste
mirestu eta maitatu zenuen zure
Txirrita maisu haundiarekin. Eskuminak
gure partetik. Eta esaiozu Hernanik ez
duela oraindik ahaztu (eta ez daukala
ahazteko) eta bertso harrigarri hartan
esaten duen bere oroitzapenen 80
urtekoa gerturatzen ari denean, beste
80 eta beste 100 ere joango direla.
Esaiozu guzti hori bai, eta bere
heriotzaz gero 66 urte joanak diren
arren bertsoak zutik dirauela ere esan,
Ereñotzun, Latxen, Epelan eta
Hernanin. Eta esaiozu ere fruitu berriak
heldu direla Hernanira. Lasai egoteko.
Mendeetan zehar etorri zaigun bertsoa,
indartsu eta osasun onean dugula.
Prest, gazteen indarrarekin, datozen
garaiei ekiteko.

Ez dakit bertsolari haundia izan
zinen Paulo. Ziur nago ordea gizon
haundia bai, izan zinela. Beraz, nere
bertso kaxkar horretako "gizon
maitagarriarena" ez zen bertsoak ondo
errimatu zezan ipinitakoa, barne
barneko sentimendua baizik.

Eskerrak eskaini dizkidazun
hainbeste une zoragarriengatik.
Eskerrak bizitza, jatortasunean
oinarritzen jakin izan zenuelako, eta
orain Paulo, goza ezazu betirako omen
den bizitza berri hori. Ongi merezia
duzu eta.

Paulori bihotzez eskaintzen diodan bertso batekin hasi nahi nuke lan hau. Habaneraren doinuan doakizue:

*Auzoa Epele eta
Telleria baserria,
esan beharrik ez dago
Hernani zala herria,
kabi horretan jaio zen
kantari txantxangorria,
bihotza bertsoz betea
ta aurpegian irria;
berriz emankor zetorren
bailarako iturria,
Txirritai bazetorkion
bidean lagun berria,
Paulo-Txikia zen hori
hain gizon maitagarria,
urrezko belaunaldien
bertsolari lokarria.*

Duela hamabost urte, Lasarteko etxean bizi zirela, hainbat bisita egin nizkien Paulo Zubiarrain eta bere emazte Manoliri. Zenbat kontu esan ote genizkion elkarri. Edo, hobeto esanda, zenbat kontu esan eta gogorarazi ote zizkigun Paulok solasaldi haietan. Denetarik. Baina, batez ere, bere bertso garaiak ekarri zizkigun gogora. Oso gogoan zeuzkan gehienak.

Orduko elkarrizketa goxo haiek folio batzutan jaso eta laburpena-edo egin ondoren, orduko EGIN egunkarian idatzi nituen.

Bai, joan dira hamabost urte; geroztik sarri egon izan naiz Paulorekin, batez ere azken hamar urteotan Hernaniko Sandiusterrri Zaharren Egoitzan dagoenez gero, eta, nola ez, beti edo gehienetan bere bertso ibilerak azaltzen dira "gomesartzioan". Izan ere, haiek garaiak, haiek ibilerak, Paulok izan zituenak!

Paulorekin erraz hitz egiten da. Hitz erraz eta xamurrekoa da Paulo. Gizon atsegina solaserako, eta askotan "prozesioa" barrutik izango duen arren, beti umore onean dagoen itxura ematen du. Irribarrea da Pauloren aurpegiaren ezaugarrietako bat.

Lasarteko elkarrizketa haietan 75 urte betetzear zegoen Paulo; aurten berriz, 90 urte egingo ditu. Eta gaur irakurtzen ari zareten lantxo hau egiteko, orduko haria hartu dut oinarritzat. Oso oroitzapen gozoak gelditu



Paulo Txikia, ezkerrean, senitarte eta lagun batzuekin

zitzaizkidan orduan Paulo eta Manolirekin izandako solasaldiez, eta orain Paulo-Txikiri buruzko beste lan bat eskatu zaidalarik, neure buruari egin diodan aurreneko galdera hauxe izan da: orri zuri batetik abiatu behar ahal dut Pauloz idazten, ala hain oroitzapen ederrak utzi zizkidan elkarrizketa atsegin haien segida egingo dut? Eta zalantzarik gabe, bigarren bide hau aukeratu dut.

Has gaitezen bada, zaharrak gogora ekarriz eta berriak ere tartekatuz.

Paulo Zubiarrain, gero Paulo-Txikia eta Hernani-Txikia izenez ezaguna izango zena, 1912ko urriaren 26an jaio zen Hernanin, Epeleko Telleria baserrian. Zortzi senide izan ziren, eta bertsoarako zaletasuna etxean bertan sortu zitzaion. Izan ere, "*senide guztiak aritzen ginen bertsoan jo eta ke. Aita ere bai, eta batez ere aitona (amaren aita)*", esan digu Paulok. Aitona honek Joxe Miel zuen izena eta Txirritarekin kantatzen zuen. Paulok irribarretsu eta gustura komentatzen du Txirritaren hain ezagun egin diren bertsoetako batean aipatzen den Joxe Miel hori bere aitona zela. Gogora dezagun bada Txirritaren bertso hura:

*Orduko hango bertsolariak
lau lagun ginan guziak,
Hernanin bertan bataiatuak
barrio hontan haziak:
Joxe Miel da Erramun hilak,
ni ta Juan Mari biziak,
San Antoniok merezi du ta
eman zaizkagun graziak.*

Eta gauza hauek idazterakoan, niri, gure hizkuntzaren ahoz ahokoaren miraria datorkit gogora; ze bertso hori eta beste hainbat eta hainbat (Txirritarenak gehienak), nik (mutil koxkorra nintzelarik) nire aitona Juan Joxek kantatuta ikasi nituen Aita Zavalak Txirritaren lehen liburua argitara eman baino lehen.

Beraz, Paulori etxetik zetorkion bertso afizioa eta bertso giroa. Baina ez etxetik bakarrik, ze *"gure barrio hartan danak aritzen ziren bertsotan igande iluntzea etorri ezkerro"* esaten du Paulok: *"Txirrita difuntuak ere esaten zuen hori eta bertso batean ondo asko adierazi ere bai: "Barrio gutxi izaten dira gurea baino alaiak". Izan ere baserri danak sagardotegiak bait ziran"*.

Garai haiek zein burutapen dakarkioten galdetuta, oso gustura ibiltzen zirela esan digu. Izan ere, *"jaten baino gustorago ibiltzen bait ginen bertsotan"*.

Lehenengo plaza, behar bada, 17 urterekin egingo zuen, 1929. urte aldera *"Ereñozuko San Antonio aurrean aritu ginen Txirrita, Saiburu, Joxe Oiarbide Ttanttua, Frantsez Txikia eta neroni"*. Berak 17 urte, eta Txirritak, berriz, 70 egiteko. Txirrita handik

urte gutxira hil zen, 1936ko ekainean hain zuzen. *"Hamazortzi urte nituela berriz, iparraldean ere izandu nintzan bertso kantari. Eta handik aurrera berriz, isildu gabe"* esan digu Paulok.

Isildu gabe ibili bazen leku askotara iritsiko zela aipatu diogu Paulori, eta bertsolari askorekin arituko zela noski. Eta harrigarria da Paulok zenbat bertsolarirekin eta zenbat lekutan kantatu duen entzutea. Esan dugu Txirritarekin kantatu zuela. Artzai Txiki eta Saibururekin ere bai. Gerora berriz, Basarri eta Uztapiderekin; Zepai, Mitxelena, Lasarte, Txapel eta Lazkao-Txikirekin ere bai; eta baita Joxe Lizaso, Arozamena eta Lazkanorekin ere. Lazkao-Txikirekin azkenez, Iparragirre sagardotegian egon zela esan digu. Sagardo barrikote edo probaketa batean hain zuzen.

Eta non kantatu duen galdetu diogunean: *"Gipuzkoan asko, Nafarroan ere bai (gehien Lekunberrin) eta, noski, baita Bizkaian ere (Lekeitio, Berriatua, Markina)"* esan digu.

Plazetatik erretiratu, bat-batean kantatzeari utzi eta idazten nolatan hasi zen



Tolarea Kofradia VI. Kapituloa 1999an egin zen; Paulo Zubiarrain, "Paulo Txikia", beste kofrade berriekin zin egin zuen mementuan

galdetu zaionean, berriz, Paulok erantzun digu anaia Joxe Marik behin esan ziola: "Koño, ez al dek behin ere bertso-aldi bat jarri behar, bertsolari izan haizela adierazteko besterik ez bada ere?". Eta "aitonarekin ardiak zaintzen egoten ginenekoak dira nere lehen bertso jarriak" esan digu Paulok; Agerre mendiko bordari jarriak hain zuzen, eta berak esan digunez, beste sail guztiak errenkadan etorri dira, bata bestearen atzetik, lehen liburua osatu arte.

Bertso horiek eta beste sail asko "la kantatuz bezela" Auspoa saileko 190. zenbakian agertzen dira. Baina Antonio Zavala, Auspoa saileko arduraduna, ezagutzen dugunok, badakigu nolakoa den, eta segituan jarri zuen Paulo berriz ere lanean eta lan berri horren fruitu izan zen Pauloren bigarren liburua: "Gaziak eta gozoak", Auspoa saileko 194. zenbakia.

Hasieran anaiak esan zion bertsoak idazteko, baina gerora A. Zavala izan da Pauloren bigarren "itzala", idatzi behar zuela behin eta berriz gogorarazi diona. "Barre batzuk egin izan ditut Antonio Zavala lagunarekin". Hirugarren libururako ere bertsoak idatzita dauzka "tentazioa etortzen denean idazteko beldurrik gabe" esaten omen dio A. Zavalak eta luze baino lehen ikusiko du argi liburu berriak.

Eta Pauloren mamia eta arima bertsoa izan denez, ipini ditzagun bi liburu hauetan argitaratu dituen bertso batzuk. Era guztietako gaiak erabili ditu Paulok bertsoak jartzeko: gazte garaiak gogora ekarri dituenak, pobre eta aberatsen arteko diferentziak, euskararen aldekoak, gizadiari buruzkoak etab.

Eta nola ez, bere lehenengo maisu handiari, Txirritari, jarritako bertso batekin hasiko gara:

*Bertso batzuek jartzera noa
gure Txirrita zanari,
zor hori eta haundiagoa
diotelako berari.
Hura izan zen lehendabiziko
lan hontan nere gidari,
errespetua zeinek ez izan
halako maisu zaharrari.*

Epeleko iturriari jarritako sailetik bat aukeratu dugu:

*Iturri hura hantxe daukagu
erreka baten onduan,
gu mutikoak ginala ere
han ezagutu genduan,
txorro hartatik trago ederrak
eginak gera orduan,
ezta iturri hobeagorik
asko izango munduan.*

Arrantzaleak ordaindu behar izaten dituzten multak direla-eta jarritakoen artetik bertso hau aukeratu dugu:

*Mundu guztian ugarituzten
nola dijoan lapurra,
aurki hoientzak beharko da guk
egiten degun apurra,
lendikan ere zer pasako zan
hartuta geunden beldurra:
Prantzesentzako itxasoa ta
España-rentzat lurra.*

Aitona batek bere erretiroaz zituen kezka eta larritasunak eta ezin bizia kontatu zizkion, eta Paulok jarritako bertso sailetik bat jarriko dugu:

*Agindu asko egiten dute
baina gutxi aurreratu,
agintariak, badaukazute
zuek ere zer pentsatu,
herriak bere arrazoia du
bizitzeko lain eskatu,
etzazutela behartsurikan
hoinbestearino zanpatu.*

"Bertso hauek jarri nituen haritz-arbol bat banintz bezela ". Nik bat aukeratu dut:

*Ni arbol bat naiz sortu nintzana
mendan arkaitz onduan,
ezkur-ale bat nonbait bizirik
han gelditu zan neguan,
udaberria etorri zan da
haretzek piztu ninduan,
pixkabanaka hazi nedien
gero urteen buruan*

Umetako gauzak gogoratzu:

*Gaurkoak ez dabilta
lengoen antzera:
kotxean eskolara,
kotxean etxera,
jan da jantzire ondo
markesen antzera,
haundi-nahiak dakarki
mundua galtzera.*



"Hernanin Entzuna" CDa grabatu zenean Joxan Goikoetxearekin, diska kudeatu zuenarekin

Eta Hernaniko giroari buruz:

*la etxero bazan
sagardotegia,
bakallo errea ta
etxeko ogia,
berriz non ezagutu
hain mundu garbia?
Parra egiten ere
aztu zaigu ia.*

Esan beharrik ez dago, horrelako pertsonaia batek guztiz merezitakoak izan dituela egin dizkioten omenaldiak: Donostian Bertsolari Egunean, Ereñozun, Elur-Txorin, etab.

Berarekin egon naizen azkeneko aldi honetan triste antzean harrapatu dut. Berak esan didanez, asma pixka bat omen dauka, apetitu gutxi, eta indar falta igartzen omen dio gorputzari. Udaberria gainean dela esan eta berarekin berpiztuko dela adierazi diogunean, berriz ere bertsoak etorri zaizkio burura. "Hirugarren liburu hori osatzeko ez zait oraintxe asko falta, eta hainbesterako kemenik izango ahal degu udaberri honetan!" esan eta besarkada batekin despeditu gara.